



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN

bbk

MAHATSERRIKO ALD ZKARIA

bertin

Legis gordailua: BI-85-98

2001ko MARTXOA 31. zkia.
125 pzta.

Begoñako Mugak

**Euskal Kultura
kale gorrira**

**Emakumeok,
has gaitzen
Bertsotan!**



**Santutxuko
Aratusteak**

**Juantxo
Legarretaetxebarria**

**"Santutxuko jaietan
zaharren eguna
errekuperatu nahi nuke"**

bertonekoak



Campo Volantin eta Uribitarte uhartea (1870)

Pedro Telesforo Errazkin zanaren altxorrera jo dogu beste behin oraingo bitxi hori geure orriotara ekarteko. Erretratu honetan Campo Volantín eta Castaños aldea ikus leikez 1870 urtea baino arinago egozan moduan. Urte hartan Bilbok beretzako hartu eban Campo Volantín, Ibarra izenaz be ezetua. Bertan Bilboko burgesak euren etxe dotoreak altxetan hasiak ziran. Euren artean, Zubiria eta J. E. Delmas inpresore ospetsua. Azken honena argazkiko beheko aldean dagona da. Ibaizabalen bestaldean, Abandoko ibarrean, Uribitarte uhartea ikusten da. Erretratu hau egin eta berehala barruko kanala sikatu eta gaur egun Uribitarte kaia esaten jakona sortu eben. Gan-ganean, Abandoko San Bixente eleiza dago. Argazkia Euskal Museoa paratutako "Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin" liburutik hartu dogu.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Santutxuko Aratusteak	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Kirolak: Iñigo Barona (elkarrizketa)	26
▶ Mariaren eguna	10	▶ Mendi Ibilbidea	27
▶ Begoñako Mugak	12	▶ Kultura: Euskal Astea	28
▶ Bakarka: Juantxo Legarretaetxebarria	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Ba, etorri jaten lengo egunien Bertoneko bat -ez nendun ezetu, ze Bertonekoak ez naurie ezetuten, ezta ezetuko bere- ta pregunteu ein eustan:
 -- Korrika egingo duzu?
 - le eingo doten zeeeeeeeeer?
 - Ba, Korrika, ez dakizu zer den?
 - Korrika, ba, karran edo, ezta hori?
 - Karran? Bai, izango da. Nola esaten da bizkaieraz? Ariñiketan?
 - Bai, entendidu dotzut. Ez dotzut entendiditen preguentie. Aber karran eingo doten? Zer ba?
 -Ba, euskararen alde, badakizu...
 -Alde!!!!? Euskeratik eskapau!? Zelan ba eskapau? Euskeratik eskapau guren badabil baten bat, baie karraderan? Ta euskeraz preguentaten dozu? Ta nik zegaittik egingo dot alde euskeratik?
 -Zu zer? Egon zara Sorgintxulon maria erretzen ala zer pasatzen zaizu? Joder, ez dakizu Korrika zer den?
 -Bai, ba, lehen esan dotzut ba, baie ez dotzut preguentie entendiditen.
 -Joder, bai, Korrika, AEK, kilometroak, lekukoa...
 -Lekukoa? Nongo lekukoa?

-Joder, nongo lekukukoa zu tio! Ta zu euskalduna zara?
 -Ixen bai, betik ixen bere bai, ta erderaz txaaaarto ganera!
 -Ba, euskeraren ald.. euskerarentzat egiten da, jende asko korrika, joder, ez duzu inoiz ikusi?
 -AAAAAAA! Hareik ibiltzen ziriorenak esaten euskeraz eitteko karran ein bier dala, baie gero karran eitten dotzezu ta ez dotzue entendiditen, ta erderaz esaten dotzezu ta euskeraz eta kitto! esaten dotzue, ta nik ba, kitto! ixilik ta listo! Ta gero ganera gure daurie euskeraz ein ta karran ta karran aldatz gora ta ezin daurie arnasik hartu bere, ta berba gitxiago ondiñokarren. Ta gero berbetan hasten direzenien raroos edo eitten daurie, zeure modure-edo... Porsierito, ez zarie familikoak ixengo, ezta? Koi-ttaduek, Santo Domingon gora ta berbetan, hori dok hori!
 -Ba begira, aurten Santo Domingotik behera datoz.
 -Joño, ba holan euskera gehiago eingo daurie, baie ezin dire lotu aren baten ta berba egin trankil ta bier dan modure?
 -Begira, tio! Nik paso ia zurekin. Beste bati egingo diot entrebistie (ostías! pegatu egin dit).


Tire ba! Oingoan bere Bertonen erretratoa atara barik.



IRITZIA

BEGOÑA ETA ARTXANDA

EZ GAUDE BAKARRIK



Begoñak oso lotura estua izan dau beti Artxandagaz. Hori dala eta, hiru tokiren barri emongo dogu oraingo saiakeratxu honetan.

Lehenengoa errepidea da. Errepide hori Artxandan hasten da, eta Egirletan amaitu (Egirleta da, euskeraz, Santo Domingo gaztelaniazkoaren ordaina). Bada, errepide horrek Artxandako magala zeharkatzen dau, Egirletatik San

Roke etorbideraino, hau da, Funikularren urteerraraino. Funikularrak 300 metroko garaiera gaindizten dau, eta 1915. urtean zabaldu zan.

Bigarrena Artxandako magala da. Bidea dogu, Lorategi-Uriaren etxemultzoaren kooperatiban hasten da, eta gora egiten dau, Egirleta-Artxandako errepideagaz bat egiteko. Artxandako igokerea da hirugarren aurkintza. Bide honek Uribarrin dau hasikerea, eta Artxanda mendiraino heltzen da; Maurice Ravel etorbidea zeharkatzen dau, eta Lezamako Trenbide Zaharraren bidea, eta aurrera egiten dau Artxanda-Egirletako bideagaz bat egin arte.

**GOTZON LOBERA
REVILLA**

2001eko martxotik aurrera BERTON ez dago bakarrik. Ez dago lagun barik Euskal Herriko hiriburu handienean. 2001eko martxotik aurrera euskarazko herri aldizkariaren eremua gure inguruko beste ale batez aberastu da. Gure mundua, euskararen unibertsoa, apal eta txiki, duin eta zabal, are anitzago bilakatu da lagun berri honekin. Izan ere, Berbaizu Euskara Elkartearen altzotik PREST! aldizkaria sortu berria da Deustualdean. BERTONEk

Begoñako elizate zaharraren eremuak beretzat hartzen dituen bezalaxe PREST!ek Deustuko elizaterenak jorratuko ditu. Begoña eta Deusturen atzetik Abando eta Bilbo etorriko ote dira? Bidea hasi baino lehen elkarrekin jardun dugu eta holantxe izango da bidean hasi eta gero. Zorionak PREST!, zorionak Deustu eta zorionak euskaltzale guztioi. Euskarak elkartzen gaitu.

BERTON

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jauriaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Berto Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLI-
ZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

berton

"Santutxuko Inauterietan txunda txun auzoko kale denetan..."

Aratusteak fuerte, euriari kasurik ere egin barik



Testua: Erdoitza Martinez
Argazkiak: Iñigo Azkona

*Hainbat denbora
Santutxuko Inauteriak
itxoiten... eta azkenean heldu
zaizkigu! Gaur
goizean ohetik jaiki
naizenean, urduritasuna
gorputzean barrena sentitu
dut... -imajina ezazue,
momentuan neukan ajeaz
ez naiz enteratu ere
egin-. Berrito mozorrotzeko
ordua heldu da!! gainera San-
tutxun!! Baina... leihotik
begiratzean, horra hor nire
atsekabea: urtero legez, euri-
tan. Hala ere, Robin
Hood-en arropa jantzi -hori
baitzen nire mozorroa- eta,
koadrilarekin batera,
auzoko kaleetan zehar
abiatutako desfilea
gerturatu naiz, eguraldi
traketsari aurre eginez.*

Egia esan, berandu heldu gara; aitzitik, ez dugu ezer galdu, desfilea, gu bezalaxe, ez baita oso puntuala izan. Jendea ez da beste urtetan bezainbat animatu -akaso, jautzen ziren euri-tanta madarika-tuak zirela eta-; gauzak horrela, bizpahiru koadrila baino ez dira animatu martxan parte hartzera, nahiz eta azkenean hamaika lagun animatu diren. Auzo osoa kolorez bete eta alaitu ostein, santutxutarrok -eta inguruetatik hurbildutakoak- bazkaldu

**Sastria
EDRO**
**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**
Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37
Tfnoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**
GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
94 412 82 74
O.P.E.: 03/9/97

CYBER TIME
**Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak**
Sarean jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak...
Aita Pernet, 1
48004 Santutxu Bilbo
Tfnoa/fax: 94 459 73 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net



aurretiko poteak hartzera joan gara, tabernetan zegoen giroaz jabetzeko prest, arratsaldean espero zitzaigunaz ohartzeko. Farra aurrera jarraitzeko ondo bazkaldu behar genuen, hainbat izan direlarik aukerak: Sorgintxulo Gazte-txean ospaturiko herri bazkarira auzokideekin joatea, etxera familiarekin edo taberna batera koadrilarekin. Zelan edo halan tripa-zorroak isilarazi ostean, ezin kopatxoa falta, bai bazkariarekin amaitzeko, bai festarekin jarraitzeko. Hortik aurrera..., imajina dezakezue ezta? Tabernaz taberna joan, dantza egin, abestu, jendea ezagutu, ezagunak agurtu,... eta ahaztu barik Karmeloko plazatik pasa, bertan egon den erromerian geldialditxo bat eginik -hori bai, bertan, batez ere, gazte jendea zegoen



dantza ta dantza-. Gaur inguruko guztiak zeuden pozik, seguruenik eguna berezia zela eta; baina... gaurkoak, gainerako egunak bezala 24 ordu izan ditu, nahiz eta ari-nago joan. Orain ohera joateko ordua heldu da, bihar hitz egingo dugu gaur gertatukoari buruz. Uff! Bihar... nola egongo gara bihar? Ohetik jaikitzeko gai izango gara? Edo... beno, hobe dugu ohean sartzea; bitartean ateratako argazkiekin utziko zaitzuet.



**MAHATSERRIAN ETXEBIZITZA KOOPERATIBA BATZUK DEKOGUZ,
ZAHARRENETARIKO BAT UNION BEGOÑESA DERITZONA DA. HONE-
LAKO KOOPERATIBA BAT ZER DAN BERE HISTORIA ETA FUNTZIONA-
MENDUAREN NONDIK NORAKOAK HOBETO
EZAGUTZEKO ASMOAGAZ
PEDRO HERRERO ETA JOSEFINA DEL AMOGAZ
EGIN DOGU BERBA**

**Begoña eta
Euskerea**

PEDRO HERRERO, inork igerriko ez leuken arren, 92 urteko gizon gogorra da. Oraindino gordetzen dauz Union Begoñesa etxadiko fundatzaileen indarra eta idealak. Benetako sozialistatzat dauko bere burua "ez oraingoan modukoa" eta harrotasunez erantzun deutse "Sociedad De Casas Baratas La Unión Begoñesa"ren gainean egin deutsaguzan galdera guztieri.

Berton: Zelan sortu zan Union Begoñesa etxadia eraikitzeke ideaia?
Pedro Herrero: Primo de Rivera diktaduran ley de casas baratas zeritzona atera eben eta lege horren bidez gobernua laguntza ekonomikoa emoten eutsezan etxea eraiki gura ebeneri. Orduan ahoz aho zabaldu zan kooperatibaren ideaia eta "La Barbier", "Euskalduna", "Santa Ana", "Babcok & Wilcox" eta "La Basconia" fabriketako 60 behargin batu ziran hasiera batean, baina gero demanda itzela egon zan legez erabaki genduan 100 arte zabaltzea. Lehenengo batzarrik Boluetan egin genduazan Pantaleonenean eta batzar horreen ondorioz 1922ko abenduaren 5ean "Sociedad De Casas Baratas La Union Begoñesa" sortu zan. Ismael Gorostizaga arkitektuak proiektua egin eta Bizkaiko Foru Aldundiak milioi eta berrehun mila peseta inguruko mailegu bat egin euskun, gero geuk bueltatu behar genduana. 1927. urtean hasi ziran eraikitze-lanak.



Zelakoak izan ziran eraikitze lanak?
Lanak 1927an hasi ziran eta kanpoko beharginak ezeze kooperatibako partaideak ere ibili ginan beharrea. Guri, bazkideoi orduko peseta bat pagaten euskuen, bueno ordaindu baino deskontatu egiten euskuen. Geuk hilean hilean kuota bat ordaindu behar geuntsan soziedadeari eta beharrea emoneko ordu bakoitzeko kuotatik peseta bat deskontaten euskuen. Eraikitze-lanetan danok hartu genduan parte, Jenaro Ortega, Leocadio Olazabal fundatzaileak,... eta fabrikak ere lagundu egin euskuen; adibidez "La Basconia" fabrikak materialak oparitu eta domeketan kamioiak ere lagaten euskuezan. Apurka apurka etxeak amaitu eta zozketatu egiten ziran.

Aintzinean norena zan orubea?
Orubea Santacoloma kondearena zan eta berton Boluetako Beti-arin futbol taldeko zelaia egoan, baita "La Tejera" teilak egiten ebazan fabrika ere. Egun Union Begoñesa dagoan ere-

muaren behelaldean aintzira bat egoan eta bertan arrantzan egiten genduan etxadia eraiki baino lehen.

Zelakoa izan zan Union Begoñesa etxadiko barne antolaketa?
Ehun bazkide ginan eta urtean behin batzarra egiten genduan, gaur ere egiten dogu, eta batzar horretan soziedadeko "junta directiva" aukeraten zan. Horretaz aparte Herri etxea eta ekonomatoa ere bagendukazan. Herri etxean, gaur egun garagardotegia dagoan etxean, kafe bat egoan eta bertan antzezlanak, dantzak eta egiten ziran. Herri etxea ehun etxebizitzak egin eta gero lotu zan diruagaz eraiki genduan.

Zelakoa zan ekonomatoaren funtzionamendua?
Ekonomatoan libreta bategaz ordaintzen genduan, bertan apuntaten zan erositakoa eta hile akabuan ordaintzen zan. Libreta ezeze soziedadeak txanponak ere atera ebazan eta txanpon hareekaz esnea eta ordaintzen genduan. Ekonomatoan denetarik egoan, jatekoak, arropak,... oso ondo egoan ze dendatan baino merkeago erosi ahal genduan. Ganera garai haretan ez egoan dendarik inguruan.

Nondik datoz Union Begoñesa barruko kale izenak?
Kale nagusiarri "5 de Diciembre" izena emon jakon Soziedadea sortu zaneko egunagaitik. Beste kaleak lagundu euskuen pertsonen izena deuke, adibidez "Jesús de Txirapozu" La Bas-



coniako zuzendaria izan zan, "Jose Posse y Villelga" kale izena Bizkaiko aurrezki kutxako zuzendaria izan zan gizonaren omenez imini genduan. Beste kale bateri "Alejandro Gerrickabeitia" hasierako medikuaren izena emon geuntsan. Aldatu dan izen bakarra "Pablo Iglesias" kalearena izan zan. "Union Begoñesa"ko Fundatzaileen artean abertzaleak ere baegoazan, baina gehienak sozialistak ginan legez --benetako sozialistak e!? ez oraingoan modukoak--, kale bateri "Pablo Iglesias" izena emotea otu jakun. Faxistak Bilbon sartu zirenean plaka apurtu eta "San Fermin" izena imini eutsen. Gaur egun kale horrek ez dauka inongo plakarik.



JOSEFINA DEL AMO 88 urte deukoz, Union Begoñesara ezkondu zan orain 60 urte inguru eta bera da bertan dagoan euskaldun bakanetariko bat.

Zelakoa izaten zan Union Begoñesako andran bizimodu?
Andrak etxean egiten genduan behar, baina horretaz aparte batzuk fabriketan ere ibiltzen ginan. Neu adibidez Etxebarrian egon nintzen beharrea, untzeak garbiduten. Oso gogorra zan ze fabriketan asteleheneetik zapaturik egiten genduan behar eta ganera etxeko gauzak bere egin behar genduazan. Arropa adibidez domeketan garbiduten genduan Basarraten egoan garbiletan edo ostantzean orain kirolegia dagoan lekuan egoan trokan bere.

Zein izan zan gomutan dekozun garairik txarrena?

Akorduan dekozu inguruko etxebizitza haudiak eraiki ebezanean? Zertan aldatu zan zuen bizimodua?
Baik, akorduan dekot. Hemen inguruan lehenago ez ez zan ezer egon, soloak eta baratzak baino ez. Basarraten ganadu feria itzelak egiten ziran, Bizkaiko bazter guztietatik etorten ziren baserritarrak hona. Hau oso leku lasaia zan, kanpora urtetan genduan eguzkitara eta etxeko ataritik Gorbeia gurutzeta bere ikusi ahal genduan. Gero ez, etxe haundi honek egin eta dana aldatu zan zeharo. Lehen hau herri baten modukoa zan, atea irekita egoten zan beti, baina etxe honek guztiak egin eta...

D U G U D U D U G U D U G U

E R T O N D U G U

Herri baten arrastoen bila

Anexioa izan eta 76 urte beranduago oraindino Begoñako mugarriak ikus daitezke bazterretan


Begoñako elizatea zena, mahatsorrien herria, orain dela 76 urte desagertu zen Bilbo handi baten zilbotean. Herri independentea izan zenaren gomuta larregi ere ez dago gaur egun bere lurretan bizi direnengan, gehien-gehienak askoz beranduago sortuak eta bertoko tradizio bakoak izan direlako. Hala ere, herri desagertu haren arrastorik bada oraindik ere gure bazterretan, kaletik begiak zabalik doazenentzat behintzat.

Testua: *H. Ortega*
Argazkiak: *Iñigo Azkona*

Begoñako eremuetan fundatu zuen On Diego Lopez Harokak Bilbao 1300 urtean. Geroztik, Begoñako elizatea eta Bilboko hiria elkarren ondoan bizi izan dira mendez mendez. Urte luzeotako elkarren arteko liskarren oihartzuna oraindik ere guregana heltzen da. Artxiboetako orri horizatuetan begiratzeari ez dago Bilbok Begoñako lurretan aginte ekitaldiak egiteko itzelezko ahaleginak egin zituela ikusteko. 1570an, Bilboko alkateak, ondoan eskribaua zeramala, aginte ekintzak eta bisitak egin zituen Begoñako Urizarri, Zurbaran, Otxarkoaga, Iturriaga eta Artatzako kofradietako baserrietan, besteak beste.

Hiru urte beranduago larehun bilbotar armatu sartu ziren Begoñako lurretan kontra egingo zienari tiro egiteko prest. Orduz geroztik Bilbo Begoña baino gehiago izan zen jurisdikzio eta muga kontuetan. Baina zeintzuk ziren mugak?

Santutxuko Mintza Taldeak eginiko "Begoña" liburuan, 1861erako honako zabalpena ematen zaio Begoñako elizateari: Iparraldetik Artasamina edo Arkotxa errekek



Artxandatik behera Ibaizabaleraino egiten duen bideak Deusturekiko muga markatzen zuen. Gainera, Artxandan Sondika, Loiu, Derio eta Zamudioekin mugatzen zuen.

Hegoaldetik, Ibaizabal ibaia zen Arrigorriaga eta Basauritik bereizten zuena. Sortaldetik Etzebarri zuen Begoñak mugakide, bertan Santa Marina sanatorio inguruan sortzen den Azkarai-bekoa errekek markatzen zuen banaketa.

Eta sartaldetik zituen Begoñak bere mugarik eta hauskorrenak. 1861ko urte hartan Bilbok Zazpi Kaleak eta ondo-ondoko orubeak baino ez zituen. Berehala aldatuko zen panorama, hiri indartsua albokoelizateak irentsi nahian zebilen eta. Artean, hala ere, Urizarri, Campo Volantín, Zurbaran, Atxuriko zati handi bat, Otxarkoaga eta Bolueta bezalako auzuneak mahatsorriak ziren.

1870 urteko anexioaren bitartez, Bilbok bere gain hartu zuen Begoñako lur eta auzo batzuk. Geroztik, Atxuri, Iturribide kaleko zati bat eta Campo Volantín Bilboko Udalaren menpe daude. 1925ean Bilbok Begoñako gainerako eremuak anexionatu zituen, Deusturekin batera.

Begoñako mugarriak

ARRIETA TABERNA. Iturribide eta Zabalbide kaleen arteko loturan. Etxe zaharrea oraindik ere Begoñara ailegatzen dela dioen kartela irakur daiteke. Garai batean Zabalbide inguruko etxeak holakoak izan ziren. Gaur egun dorre altuez inguratuta dago antzineko baserri itxurako etxe hori. Kartela 1870 urte aldean jarri zuten etxe horretan, Zabalbide kaleko 43 zenbakian, orduantxe Bilbok Atxuri anexionatu zuen eta.



mundu bat euskarara bildu



2001- Gasteiztik Baionarai • martxoak 29 > apirilak 8




MIRAFLORES. Morrotxikito baserria. Mirafloreseko ganetik behera, Boluetarako aldatzean, ezkerrean etxe bat dago. Bertoko horma batean oraindino "Bolueta" eta azpian txikiago "Begoña" dinoen kartela irakur daiteke. Eta behetik, Boluetatik, gorantz doanak "Bilbao" ikusiko du etxe horretako kontrako horman eskegita. Horixe, Mirafloreseko ganekoa, izan zen historian zehar Bilbotik Galdakaora joateko bidea. Atxuritik Mirafloresera, hortik Boluetara eta zubibarritik Basaurira. Gaur eguneko Zumalakarregiren etorbidea azken hogeitamar urteotako kontua baino ez da.



MALLONA. Mallonako kanposantu zaharraren ondo-ondoan datza mugarri hori. Gaur egun Mallonako futbol zelaiaren atearen alboan dago. Begoña eta Bilboren arteko mugak zehazten ditu. Kasu honetan "Bilbao" baino ez dago idatzita. Hiriburua aginte barrutia Mallonako eskaileren ganean bertan amaitzen zen. Hortik aurrerakoa mahatsorrien bazterrak ziren.

ATXURI. Encarnación komentuko eleizaren ondo-ondotxoan oraindik ere ikus daiteke Bilboko uria eta Begoñako elizatearen arteko mugarria. Eleiza eta ondoko komentua arteko izkinean datza, hormaren erdian nahiko altuan. Esquinetara "Bilbao" irakurtzen da. Ezkerretara, oster, "Beg", Begoña. Ondorioz, komentua eta XVI mendeko eleiza bera ere Begoñako lurretan zeuden.




Testua: Irune Berro Urrizelki
Argazkiak: Iñigo Azkona.

e
i
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

Juantxo Legarretaetxebarria

"Santutxuko jaietan zaharren eguna errekuperatu nahi nuke"

Hamahiru urte zituela Santutxun finkatu zen matsorri hau auzoa suspertzearen lanean gogor aritu da urtez-urte. Askok Santutxu futbol klubeko zuzendaritzan ibili izanagatik ezagutuko duzue, beste batzuk aldiz jai batzorde edota beste talderen baten berarekin egoteko parada izan duzuelako. Modu baten edo bestean, BERTONEkook ere Juantxu-ekin hitz egin nahi izan dugu, bere eskutik gure iraganaren berri izan dezazuen, besteak beste





Santutxuko beste talde edo jardueraz gain, Santutxu futbol klubean zuzendaritza lanak egin dituzu. Noiz hasi zinen klubean?

Ni 1965ean hasi nintzen eta geroztik beti egon naiz zezker egiten klubean bertan. Direktiban hiru edo lau bider egon naiz baina egon ez naizenetan ere, beti ibili naiz atzera ta aurrera gauzak egiten. Direktiban egon naizenetan dena den, ez naiz lehendakari bezala egon, lehendakari orde moduan baizik. Lehendakari orde izateari orain dela urte bi utzi nion. Momentu honetan ez dut bertan ardura zehatzik baina beharrezkoak diren gauzak egiten ibiltzen naiz.

Zelan hartu zenuen baina, zuzendaritzan parte hartzeko erabakia?

Han ibili garenak betidanik izan gara lagunak eta ni egon ez naizenean ere, beste lagun batzuk egon dira. Beti izan dira gure koadrilakoak, Santutxukoak. Orain daudenak ere ezagunak dira, klubean daudenak beti izan garelako lagun eta batzutan norbaitek esan, 'aizu! hemen jendea falta da' eta beno, hori entzun eta lanean hasi.

Zer dela Santutxu futbol klubeko kide, futbol zale amorratua zara ala Santutxuzale amorratua?

Ni santutxutarra naiz eta asko gustatzen zaidan auzoa da. Guztiaren gaineratik Santutxu eta horrekin batera auzoko futbol kluba. Bai, futbola baino auzo hau eta bertako taldea da nik gustuko dudana. Niri Athletic-eta, ondo, baina

horien gaineratik Santutxu F.C. Lehenengo auzoa eta gero Athletic eta gainerakoa. Bihotzean Santutxu beti.

Hainbeste hobesten duzun taldeak gora behera batzuk izan ditu aurten. Zer moduz ikusten duzu bere egoera ligan?

Aurten ez gara ondo ibili baina nik pentsatzen dut salbatuko garela. "Regional Preferente" mailan gaude eta salbatuko garela uste dut. Datorren urtean hobeto ibiliko gara ze atzetik dator jende asko eta oso ona. Txiker eta gaztetxo ekipo asko ditugu eta denak gorantz egingo du seguru asko.

Beraz, orain gutxi duzuen entrenatzaile berriarekin gauzak hoberrantz egingo dutelakoan zaude?

Bai, bai. Lehenengo entrenatzailea ere gizon ona izan zen baina orain ekarri duguna gogorra da eta pentsatzen dut ekipoa salbatuko duela.

Beste kategoria batetako futbolaz mintzatuz, zer moduz ikusten dituzu lehenengo mailan jokatzeko duten euskal taldeak?

Athletic da denetatik onena eta niretzako zintzoena, bertako joga-doreekaz egiten du eta besteek kanpotarrez eta nire ustez asko galdu dute. Dena den, nik lehenengo mailan lehenengo Athletic eta gero Erreala. Talde hauen etorkizunaren inguruan zer esango dizut? Guk Santutxun ere kantera lantzen behar asko egiten dugu baina gauzak

gero txarrago daude extranjero pila etortzen direlako eta gauza horiek Athleticentzako txarrak dira.

Dena den, nahiz eta futbola asko gustatu beste kirol batzuetan ibilitakoa zarela badakigu, arrauna eta txirrindularitza esaterako, ezta?

Arraun Kaikun egin nuen eta ondoren patroia izan nintzen Lutxanan eta Mundakan. Azkenengo hau 1983 inguruan izan zen eta Kaikun gutxi gora behera 1978tik izan zen. Arrauna oso polita iruditzen zaidan arren, nik afizino gehiago daukat futbolerako; hala ere, karrerak eta horrelakoak ikustera joaten naiz edo telebistan ikusten ditut arrauna ere izugarri gustatzen zaidalako.

Txirrindularitzan, bost urtez izan nintzen Santutxu Elkarteko zuzendaria. Iñaki Gaston eta Arsenio Gonzalez ibili zirenean ni eurekin izan nintzen zuzendari.

Gizon polifasetikoa zarenez gero kirolek urrun errestaurazioa hautatu zenuen ogibide bezala. Zer kontu diezagukezu mundu horri buruz? Egin al duzu auzo honetan lan aipagarririk?

Bai, nire ofizioa da bai. Antzinako gauzak errestauratzen ditut, santuak eta horrelakoak. Hamabost urtetatik daramat honetan lanean eta Santutxun bertan daukat tailerra. Horregatik, San Francisquito elizan dagoen santua errestauratu nuen nik.

Santutxun bertan jaiotakoa ez bazara ere, aspaldi daramazu hemen bizitzen, beraz, denbora pasa ahala aldaketa nabarmenak nabarrituko dituzu auzoan.

Ez. Ez nintzen hemen jaio Bilbon baizik baina berrogeita hiru urte daramatzat auzoan. Lehen ez zen orain bezain handia eta ez zegoen hainbeste jende, denok ezagutzen ginen. Gero, apurka-apurka hasi zen jendea etortzen eta geroztik, asko aldatu da auzoa.

Seguraski ere jada galdu diren ohiturak ezagutu izan dituzu zuk, ez?


Bai. Lehen baziren baserriko produktuekin eta ganaduarekin egiten ziren azoka batzuk. Bi izaten ziren urtean baina fetxak ez ditut ongi gogoratzen. Bat udan izaten zen eta bestea domu santu egunean zela uste dut baina ez dakit,


ez nago seguru. Inguruko baserriarrek antolatzen zuten. Lehen hemen inguruan denak zirelako baserriak, eta kanpotik jende asko etortzen zen. Ni soldadu egon nintzenen egin zen akabukoa, 1965an gutxi gora behera, baina hori akabukoa zergatik izan zen ez dakit.

Jai Batzordeko kide izan zara urteetan beraz, eta seguraski zuk proposaturik, talde hau ohitura hau berreskuratzen saiatu zela jakingo duzu. Dena den, eta egungo gizartean dirua nagusi, 2000. urtean azokarik egitea ez zen lortu besteak beste Bilboko udal-letxeak ipinitako oztopoei esker. Zer iruditzen zaizu hau guztia?

Bai, gauza polita izan zen Jai Batzordeak egin zuena, lehenengo gauzak ahaztu ezin direlako. Indarrak bildu eta antzinako ohiturak berreskuratu behar ditugula uste dut. Nik Bilboko alkateari horrelako gauzak egiteko jai batzordeak lagundu behar dituela esango nioke. Gainera jai batzordeak diru barik ere behar asko egiten du eta behintzat Udalak diru apur bat eman beharko luke.

Auzoko jaiak dagokienez, zu gazte zinen denboratik gaur





egunera aldaketarik izan dela suposatzea da. Gogoan duzu zer nolakoak ziren Santutxuko jaiak duela urte batzuk?

Lehen ez zegoen diru askorik baina zegoen gutxia ere zaharrei ematen zitzairen. Lehen jaietako azken eguna izaten zen zaharrentzat. Basarraten mahai guztiak ipintzen genituen eta guk zerbitzatzeko genien bazkaria. Zaharrek oso pozik egoten ziren. Hori gaur egun galdu egin da. Niri hori berreskuratzea gustatuko litzaidake ze zaharrei ere kasu apur bat egin behar zaie. Gero ere, deporte asko zegoen; futbola, hokeya, txirrindularitza,...

Dena den, orain dirurik ez dago ia eta nik bost urte jai batzordean ikusi dut ze lan handia egiten den jai batzordean bertan, zenbat gauza egin diren eta ondo eginak. Beti bilerekin eta gauzak polito-polito eginez. Hori dena ikusteko nik Udalarari jai batzordean sartzeko esango nioke ze horrek gauzak barruan ez badago ez daki zelan diren.

Aldaketak aldaketa, zer iruditzen zaizkizu egun auzoan egiten diren inauteriak bezalako ekintzak?

Entzun gauza bat, El Carmengo jaiak ondo daude baina Santutxuko inauteriak handienak dira. Bilbokoak baino politagoak dira. El Carmengo jaiak ere ondo daude, ni apur bat zahartu nago baina oso ondo daude. Dena den, nik zerbait egingo nuke, amabirjinaren jaiaren bat edo. Bai zeren amabirjinaren eguna da eta hori antzinatik ospatu izan da, gure arbasoek horrelako jaiak egiten zituzten hemen eta hori apurtxo bat berreskuratuko nuke. Nik izena El Carmengoko jaiak edo ipiniko nuke. Honekin ez dut nahi esan hori egin behar denik, niri gustatuko litzaidakeela bakarrik. Nik jaietako antzinako liburuak ditut tailerlean, 1974. urtekoak eta, eta bertan polito-polito agertzen da amabirjina eta "Fiestas del Carmen" jartzen

du portadan. Orduan erdaraz egin behar zen derrigorrez baina orain euskaraz egin behar da, denen artean ahal dugun guztia.

GALDERA LABURRAK

Amets bat:

Danon artean bakean eta ondo bizitzea baina euskaldunon artean.

Abesti bat:

Oskorriren Gaztelugatxe

Janari bat:

Txuleta, berdin zait hezurarekin edo hezurrik gabe.

Mendi bat:

Gorbeia, urtero emaztearekin joaten naiz aste betez

Herri bat:

Bi. Arrieta eta Fruiz (aita eta amaren herriak)

Izen bat:

Eder, semearen izena.

Artista bat:

Xabier Elorriaga

Mendia ala hondartza?

Mendia

Futbola, txirrindularitza ala arrauna?

Hirurak

KORRIKA egingo duzu

aurten zure auzoan?

SAIOA (SANTUTXU)

Apur bat bai, baina asko ez. Nekatu egiten naiz eta. Korrika Txikin ere egingo dut Gabriel Aresti institutuan. Korrika ondo iruditzen zait, jakina.



LEIRE (ORTUELLA)

Bai. Oso aukera ona da adierazteko eta errebindikatze euskaldunak hor gaudela.



BRUNO (LEIOA)

Bai, bai. Korrikan egongo naiz euskararen alde egiten delako.



ASIER (SANTUTXU)

Oraindik ez dakit zer egingo dudan. Korrika ondo iruditzen zait euskararen alde delako.



IÑIGO (SANTUTXU)

Ezin dut. Lan egin behar dut. Egia esanda, inoiz ez dut Korrikan parte hartu.



GORKA (TXURDINAGA)

Ziuraski bai. Korrika ondo dago, euskara bultzatzeko delako. Manifestaldi baten antzekoa da eta gainera tradizioa da.



GAIZKA (SANTUTXU)

Bai, bai. Korrikan egongo naiz euskararen alde nagoelako. Bultzatu behar dugu.



IXONE (SANTUTXU)

Ez. Nik Korrika Txikin egingo dut, laburragoa da eta. Korrika oso ondo dago, euskararen alde egiten delako.

KORRIKA

Santutxuko auzo elkarteak Basarrate plaza egokitzeko ideia jendaurrera azaldu du

Bertoko talde eta hiritarren iritzia batu nahi ditu Udaletxera eraman baino lehen

Santutxuko auzo elkarteak Basarrate plaza zabaltzeko eta egokitzeko proiektua jendaurrean azaldu du egunokaz. Inguru eta "plazarik eta adierazgarriena" dela uste dute eta horregatik behar bezala txukuntzeko ideia bulztatu nahi dute.



Oraingoz proiektua enkargatu dute eta eztabaida pizteko asmoz santutxuaren artean zabaldu dute. Behin elkarte eta hiritarren iritzia batuta, Udaletxera joko dute proposamen bat aurkezteko asmoz.

Santutxu auzo bete etxe dela begi bistan dago. Edonora begiratu ere, etxe altuak baino ez. Hortixe datortso Basarrate plazari bere garrantzia. Etxe handien arteko plaza bakarra da. Gainera, bertoko kultur jardun askoren lekuko izaten da urtean zehar, jaietan txosnen aterpe bihurtzen dela ahaztu barik. Eta, esan beharrik ez, hainbat santutxutarrentzat elkargune eta pasealeku izaten da Basarrateko txokoa.

Santutxuko bihotza izateari zor dio Basarratek bere ospea eta hortik etorri da auzo elkartearen kezka. "Gure plazarik eta adierazgarriena" dela kontutan hartuta, plaza txukuntzeko eta zabaltzeko asmoa darabil auzo elkarteak. Bide horretan auzoko elkarteekin berba egin dute plazarekin zer egin litekeen zehazteko.

Behin auzoko taldeen iritzia jasota, auzo elkarteak bi arkitekturengana jo du ideiak proiektu

gisa gauza ditzaten. Angel Luca-rini eta Iñaki Maguregi izan dira elkarteak batutako asmo eta desireri forma eman dietenak. Euren diseinatutako planoak ikusgai jarri ditu egunokaz auzo elkarteak hiritarrek asmoaren berri izan dezaten. "Orain santutxuaren iri-


tziak bildu nahi ditugu. Gure proiektua plazaratu dugu eta jendearen erantzuna zein den jakin nahian gabiltza", diote auzo elkarteek. Proiektuari hiritarren proposamenak erantsi eta gero Santutxuko auzo elkarteak Udaletxera joko du bere asmoa aurkezteko asmoz. Alderdi politikoaren eta udal teknikarien ordua izango da.

PASEO BATEZ INGURATUTAKO PLAZA ZABALA

Basarrate plaza egokitzeko proiektuak badakartza aldean nahikoa nobedade. Gehien igarri daitekeena, seguru asko, harrizko hesiak kendu eta plaza osoa zabal-zabal uztea litzateke. "Oztopoak desagertuta edozein aldetatik sar liteke plaza", azaltzen dute auzo elkarteek. Gainera, begiek zabalago ikusiko dute lehengo eremua. Bestalde, oso aldaketa handia ekarriko luke beste proposamen batek: Juan de la Cosa eta Médico Egiluz kaleen arteko Pintor Losadako bitartea oinezkoentzat gordetzea. Horrela Basarrate zabalago bilakatuko litzateke. Auzo elkartearen proiektuak kale zati hori arbolaz jantzitako pase-

aleku gisa atontzen du. Zuhaitzak albo banatan eta ibilbidea erdian. Hor hasiko litzatekeen pasealekuak Basarrate osoa inguratuko luke.

Gainera, auzo elkartearen proiektuak plaza hainbat txokotan banatzen du. Txoko horiek bizitza propioa eukiko dute jesarlekuen inguruan antolatuta. Arbolen geriza ere ez litzateke faltako, orotara Basarraten 50 zuhaitz gehiago landatuko lirateke eta. Bestalde, umeentzako olgeta tokia mantenduko litzateke. Azkenik, Basarrateko goiko aldean musika kiosko bat atontzea proposatzen du auzo elkartearen ideiak. Bertan musika eta oro har kultura nahiz jendaurreko ekitaldiak egiteko txoko egokia prestatu nahi dute. Kioskoa Briñas eskolatik hurbilen dagoen izkinean bertan egingo litzateke.



ALDAKETA NAGUSIAK

- MUSIKA KIOSKOA
- HARRIZKO HESIAK KENDU
- PINTOR LOSADA KALE ZATIA
- OINEZKOENTZAT
- 50 ARBOLA GEHIAGO

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

DAYTON

Kanpoko garagardoak
Ronak eta txokorrak aukeran

www.bilbaoweb.com/dayton



Iturriaga, 92 Santutxu

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



SANTUTXU SPORT

Otxarkoagako osasun zentro berria metadona banatzen hasi dira

Drogazaleentzako zerbitzu hori Bizkaia osoan zehar sakabanatuta dago

Otxarkoagan osasun zentro berria zabaldu du Osakidetzak. Medikue etxe hori Metadona Programaren barruan dago. Bestela esanda, drogazaleei metadona banatzen zaie bertan. Orain arte Conde Mirasol kalean zegoen zerbitzu hori baina Bilbo Zaharreko egoitza itxi eta Otxarkoagara aldatu dute.

Otxarkoagako osasun zentro berria martxoaren 20an zabaldu zuen Gabriel Inclán Osasun sailburuak. Buruko osasun zentroa izango da gehien bat eta horregatik hartu du bere baitan Metadona Programa. Inclán berak esandakoaren arabera, osasun zentroa auzoen eskaria izan da.

Metadona banaketa gaur egun oso zabaldua dago Bizkaian. Batetik, Zanibus izeneko autobusa hiru tokitan gelditu ohi da drogazaleei metadona emateko asmoz. Gainera, hamairu buruko osasun zentrotan eta ehundik gora farmaziatan be banatu egiten dute metadona. Erresidentzia etxeetan eta



Basauriko kartzelan ere egin egiten dela ahaztu gabe. Guztira, iaz Bizkaian 1.329 drogazale sartu zen Metadona Programan. Gehienek farmazietan jaso zuten tratamendurako botika. Ondoren modulo psikosozialak, buruko osasun zentroak eta, azkenik, Basauriko espetxea.

Arbolantxa bideak izena gordeko du

Bilboko Udalak betikoaren ordeiz Ellakuria izena ezarri nahi izan zuen

Otxarkoagako Arbolantxa bidea kaleak izen horri eutsiko dio hemendik aurrera ere. Bilboko Udalak aspaldiko izenaren ordeiz beste bat ezartzeko asmoa azaldu eta ahalegina egin bazuen ere, Otxarkoaga aldeko auzoen erantzunak iritziz aldarazi ditu udal arduradunak.

Arbolantxa bidea kaleari izena aldatzea otu zitzaizanean, eztabaida izetu zuten Bilboko Udaleko zinegotziek. Euren asmoa izen tradizionala kendu eta haren ordeiz aita Ellakuria, El Salvadorreko unibertsitatean "heriotzaren eskudroi" eskuin muturrekoek hildako jesuitaren izena ipintzea besterik ez zen. Izen horren kontra ezer ere ez, baina betiko izena-

ri eustea nahiago izan dute Otxarkoagan. Auzo elkarteak (AFO) bere kontrako iritzia azaldu zuen, izen aldaketa bertan behera uzteko eskatu eta sinadura batuketa hasi zen. Auzoen iritzia eta auzo elkartearena bat zirela ikustea berehalako kontua izan zen. AFOk aitaren baten zazpirehundik gora sinadura batu zituen izen aldaketarik ez egiteko eske. Azkenean Bilboko Udaleko alderdiek Otxarkoagako gogoari men egin eta proposamena bertan behera utzi zuen. Arbolantxa bideak Arbolantxa bide gisa segituko du. Ellakuriak merezi duen kalea beste bat izango da.

bertan MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Lutxo Egia
«Hedabideek garrantzi gehiago eman diote Gabriel Aresti sariari olerki liburuari baino.»

KARMELO ELORRIAGA, MAHATSERRIKO BASERRI GIROA AKORDUAN

Txetxu Rojo:
«Athletic eta herriaren arteko lotura ez da inoiz galduko.»

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerrean, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): _____ / _____ / _____

Sinadura

IÑIGO BARONA, BILBAO BASKETEKO JOKALARIA "BILBO ETA BIZKAIAN SASKIBALOIAK OINARRI SENDOA DU"

Testua: *Unai Cuevas*

Boluetan bizi den 25 urteko gazte honek berarekin gogoratu izana eskertzen dio Bilbao Basketi. Bertara, denboraldi hasierarekin batera ailegatu zen eta lehen jardunaldietan askotan jokatu ez bazuen ere, azkenaldian Bilboko saskibaloit talde nagusiko hasierako bostekoan ari da. Aitortzen duenez, Bilbok ACBn talde bat izatea gustatuko litzaioke, eta noski, bera bertan aritzea.

Noiz eta nola hasi zinen saskibaloian jokatzeko?


Prehistorian (barrezka hasten da). Berandu hasi nintzela esan daiteke. Infantil mailan sartu nintzen Caja Bilbao zeneko taldean eta bertan zortzi urte eman nituen. Gero, taldea desagertu egin zen eta Patronatora joan nintzen. Talde honetan urte bat egin nuen, EBA Liga egon zeneko lehenengo urtea hain zuzen ere. Baina gaztea nintzen eta nahiago izan nuen lagunekin ibiltzea eta saskibaloia alde batera utzi nuen.

Beraz, zenbat taldetan aritu zara?

Caja Bilbao, Patronato, Unibertsitateko taldean, erregional mailako batean eta denboraldi hasi geroztik Bilbao Basketen.

Saskibaloiak zein egoera bizi du Bilbon?

Umea nintzenetik hona jokalarien maila jaitsi egin da baina paradoxa bat ematen badu ere zaletuek gora egin dute nabarmen. Dena den, egoera onean bizi da Bizkaia Estatuan lizentzia gehien duen hirugarren herrialdea dela kontutan hartzen badugu. Honek argi uzten du Bil-



Argazkia: Mónica del Valle

Iñigoren ustez Bilbao Basketek, aurten, salbatzarekin nahikoa egingo du.

bon eta Bizkaian saskibaloiak oinarri sendoa daukela.

Izan al duzu gustuko jokalariren bat?

Ez dut idolorik izan baina betidanik Dominique Wilkins gustatu izan zait. Baliteke jendearentzat oso ezaguna ez izatea baina bere taldearen elastikoa gustatzen zitzaidan eta momentu hartan bera nuen gustuko.

Gogora datorkizun partidurik izango duzue...

Gehien gogoratzen dudana orain zazpi urte jokatuakoa bat litzateke. Deustuko kiroldegian Espainiako unibertsitate tx-

pelketaren finala jokatu genuen Cadizen kontra. Irabazi egin genuen eta harrokeriatzat jo daiteken arren, jokari onenaren garaikurra eman zidaten.

Zein izango litzateke zure ametsa?

Bilboko talde batekin ACBn jokatzeko gustatuko litzaidake. Nahiz eta egun oso zaila izan helburu hori lortzen ahaleginduko gara.

Beste kirol praktikak edota gustatzen al zaizku?

Saskibaloian arituz gero kontratuan agertzen den modura, lesioen arriskua dela eta, ezin dezaket beste kirol praktikatu. Hala ere,

telebistan kirol mordoak ikusten dut eta denboraldia bukatu orduko saskibaloiaz asetuta egonik beste zerbaitetan jarduteko gogoia izaten dut. Honela, noizean behin futboleant aritzen naiz lagunekin, nahiz eta oso txarra izan.

Saskibaloian aritzeaz gain besterik egingo duzue...

Iaz Lan Harremanetako ikasketak bukatu nituen eta amaitu bezain laster eskola garaitik ikasten ez nuen euskara lantzen hasi nintzen. Ondorioz, azken deialdian EGA ateratu nuen.

BIZKAITARRAK NAGUSI EUSKADIKO KARATE TXAPELKETAN

Unai Cuevas

Pasa den hilabetean Txurdingako kiroldegian egin zen Euskadiko Senior mailako karate txapelketan bizkaitarrak izan ziren nagusi. Orotara, jokoan zeuden hamaika tituluetatik bostetan urrezko domina lortu zuten. Arabarrek, bere aldetik, urrezko lau domina eskuratu zituzten eta gipuzkoarrek, berriz, bi. Txapelketa honetan, 25 klubetako 150 kirolarik parte haru zuten. Bakarkako kumite eta taldekako zein bakarkako kata modalitateetako dominak zeuden jokoan. Aipatzekoa da, Chipren egindako Europako Txapelketan zilarrezko domina lortu zuen Patxi Martinezek ezin izan zuela parte hartu. Sestaoarra, 19 urte izanik, junior mailako azken denboraldia betetzen ari da.

Gizonezkoak:

- 80 kilotik gora: Kepa Etxebarria (Araba).
- 80 kilotik behera: Francisco Javier Lezcano (Araba).
- 75 kilotik behera: Alfonso Sanchez (Bizkaia).
- 70 kilotik behera: Eric Martin (Gipuzkoa).
- 65 kilotik behera: Mikel Lopez (Bizkaia).
- 60 kilotik behera: Sergio Hernani (Bizkaia).
- Katak: Iker Bilbao (Bizkaia).

Emakumezkoak:

- 60 kilotik gora: Jaione Burzako (Araba).
- 60 kilotik behera: Estibaliz Novo (Bizkaia).
- 53 kilotik behera: Martina Martinez (Araba).
- Katak: Bihotz Benevente (Gipuzkoa)

IRABAZLEAK:

ESKORITAS (632 METRO)

ARESPALDITZATIK

Laudiotik joanda Luxaondo igaro eta gero zubi baten ondoan eskuinalderantz doan errepidea hartu, berehala Muga herria pasa eta 5,5 kilometro ibiliz Arespalditza (Respaldiza) herrira helduko gara. Autoa hantxe aparkatu genuen (A).


"Toboso" izeneko jatetxearen aurretik ateratzen den errepidetik hasiko dugu ibilbidea. Oso hurbil gurutzabide bat topatuko dugu. Artez jarraituta 200 metrotara eskuinalderako pista hartu eta etxe bakarti baterantz joango gara. Etxe honetara heldu baino lehen ezkerreko gurdibidea hartuko dugu (B). Zuhaitz eder ondotik igaro ostean larra batera iritsiko gara. Zelai honetatik beste batera pasatuko dugu hesi batek. Hortik iriteteko eskailez egindako pasabidea zeharkatuko dugu.

Bidezidorretik joanda, hesi ondotik, laster pinudi eta pagadia hasiko dira. Hortxe bidexka pista bihurtuko da. (C) Hamar minutu beranduago eskuinaldetik datorren beste pistarekin elkartuko gara. Bertan larretxoak dago, alanbrezko hesia zeharkatuko dugu ezkerretik datorren pista zabala hartzeko.

Pista honetatik igoaz, korta baten teilatua ikusiko dugu ezkerrean, larra baten erdian. Aurrera pista nagusia jarraituaz, horma bat ikusiko dugu (D). Hortxe ezkerreko joko dugu, laster biragunea pasa eta ondoren pista hori utzi eta eskuinetik (E) igotzen dena hartuta Etxaurren lepora iritsiko gara. Hona ailega baino lehenago iturbegia eta ura biltzen duen aska ikus daitezke eskuinaldean. Apur bat aurrerago eta ezkerrean, burdinazko haria zeharkatuaz, zutarria dago.

Lepora heltzen garenean aurrez aurre ikus dezakegu "Etxaurren" Andra Mariaren baseliza (F). Lepotik ezkerretara pista batetik joanez zuhaitz artean hamazortzi minututan Pico Asnos (554 m) tontorrera helduko gara.

Behin atzera Etxaurren lepora joanda, eskuinalderantz zuhaitz artean eta amildegi ondoan doan alanbrezko hesia begi bistatik galdu barik, Eskoritas mendi gainera iritsiko gara 20 minututan. Txartel kutxa burdinazko eskultura dirudi. Tontorretik ikuspegi zabala dago. Bide berberetik jaitsita, 200 metrotara eta eskuinean alanbrezko hesitik ehun metrotara harrespil bat dago.



IKUSI DITUGUN ZUHAITZ MOTAK:

- Herrian: Panpanoak, nekostak, lizarrak, arteak.
- Bidean: Haritzak, pinuak, ametzak.
- Goian: Pinuak, gorostiak, haritzak, ametzak.

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!
SAAK**

ADI
ASESORIA
FISCAL CONTABLE LABORAL
ARABICO-MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**



Euskal kultura kale gorrira

Santutxun euskara plazara ateratzeko kultur ekitaldiz jositako Euskal Astea egin da

Euskara eguneroko ogia da gure ume gehienentzat. Eskolaren bidez bertoko haur eta gaztetxo gehien-gehienek euskaraz izaten dute munduaren berri. Begi-bistako errealitate horretatik hasita, Santutxuko hainbat taldek bat egin dute egunotan ogia ez ezik euskara eguneroko hizkuntza ere izan dadin. Egitarau zabal baten bidez gure berbetea hitzetik hortzera erabiltzeko bultzada eman nahi izan dute. Gelatik kalera, liburuetatik ahoetara.

Testua eta argazkiak: J. Larrazabal

Lerro hauek idatzi orduko Euskal Astearen lehenengo aste-burua bete berria zegoen. Ostiralean pregoiak atek ireki zituen Karmelo plazan eta segituan auzoan zehar kalejira egin zen.

Larunbatean umeentzako olgetak egin zituzten Karmelo plazan arratsaldeko bostetatik aurrera. Ordu bi beranduago, Sorgintxulon, Arkaitz Estiballes, Fredi Paya, Aritz Lopategi eta

Iratxe Ibarra arduratu ziren bertso-jaialdi dotorea eskaintzeaz. Ekitaldian euskaltegiko ikasleentzako bertso-paper lehiaketako sariak banatu ziren.

DANTZARI EGUNA

Igandea dantzarako eguna izan zen. Eguerdialdera eta eguerdialdeko lagun, Gaztedi taldeko txikiak, txistulari eta senitar-

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIAK ★
Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN
URETXE
Santutxuko poteo gunean



Ikastetxeak ere Euskal Astearen buru belarri sartu dira


guztia astindu behar zituen.

IKASTETXEAK

Euskal Astearen antolatzaile lanetan hainbat talde ibili da Santutxun. Besteak beste, AEK, Gaztedi dantza taldea, Asapala, Sorgintxulo, Bertso Eskola, Auzo Elkarte, Jai Batzordea, EHE, Garoa txokoa eta BERTON aldzakaria ere.

Gainera, inguruetako bost ikastetxe ere buru belarri sartu dira antolakuntza jardunean. Eurak dira Briñas, Karmelo-Solokoetxe BHI, Karmelo ikastola, Santutxu BHI eta Gabriel Aresti institutua. Ikastetxeok ez ezik, guraso elkarteak ere azaldu dira alde. Gabriel Aresti institutuko eta Txinbito eta Kaixo aita eta ama elkarteak partaide ibili dira antolakuntza lanetan.

Irakaskuntza munduaren inplikazioaren isla izan da astearen zehar ikastetxeotan egindako ekitaldi bereziak: antzerkia, hitzaldiak, bertso saioak, jaialdiak, erakusketak eta euskararen orduak, besteak beste.



ARTESANIA
LOIDI
Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Biktimganako Laguntza Zerbitzua Servicio de Asistencia a la Víctima
Zeurekin gaude
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lanikidetzarako Zuzendaritza Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Oso sasoi ona datortzu. Ea ez dozun zuk zeuk dena hondatzen. Tentuz ibili!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Larregi pentsetan dozu. Ganera, burua horrenbeste estutu eta gero ez jatzu ideia bat be urteten. Burugogorra izateagatik denak ez dira bentajak.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Itsasoaren kresala eta eguzkiaren laztanak sentituten hasi zara. Egia ete da uda etorria dala? Badakizu, *hasta el cuarenta de mayo...*

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Takolo, Pirritx eta Porrotxen diska bat erosi dozula azken aldion? Egin zulo bat mendian, cda bost metro lur azpian gorde eta ez esan inori bez. Zorte apur batez kalerik kale dabilzen kazetari pikete begiluzeez libratuko zara.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Burtsako zure inbertsino guztiak pikutara joango dira. Interneteko zure erosketak alperrik galduko dozuz. Bota egizuz teknologia eta sosak antzarrak perretzera eta hasi zure inguruko pertsonak bidan moduan jagoten.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Zuk dekozu bekokia! Hirugarren milurte honetan ez dozu oraindik errondarik pagau. Abila zara gero! Halan da guztiz be, ez eizu pentsa inork ez dakianik...

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Hauteskunde kanpaina datorrela eta zeu pozik! Harritutu zara gero lagunek terrazatik ondo ez zabizela esatean!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Maiteak laga zaitu baina eza zaitez larritu. Errua ez da zurea. Jaio zinanetik holangoxia zara. Ez dekozu erremediorik.

Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Melitonena Correosen errakuntzea izan zala diñozu? Ez dakit ba... Mustur ganeko bigotetxu hori afeitxako bazendu...

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Ahuntzak mendirako grina. Salto-saltoka ganera. Baina habil lasai! Osterantzean estresatu egingo zara.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Legortu malko horiek. Bestela, negarrak ez deustu MIR-aren hondakinak zelan jauzten diren ikusten itziko...

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Bertsolari txarra izan ez zara. Baina "Zeruan dago izarra,/ hemen Jaimiton bizarra,/ lehendakari bat baino ez dogu,/ Migueltxo Sanz korellarra" Mayor Orejaren urtebetetze jaiari kanta-tzea be...

agenda

APIRILAREN 3TIK 6RA:
JARDUNALDI ANTIMILITARISTAK.
LEHENENGO HIRU EGUNETAN
HITZALDIAK ZAZPI KALEETAKO
BURTSA JAUREGIAN ETA AZKEN
EGUNEAN KONTZERTUA ERREKALDE-
KO ONKI-XIN ELKARTEAN.

APIRILAREN 4.
HITZALDIA. NOLA HEZI ZURE
TXAKURRA. OTXARKOAGAKO AUZO
ETXEA. ARRATSALDEKO 7ETAN.

APIRILAREN 6.
HITZALDIA. NOLA HEZI ZURE
TXAKURRA. BEGOÑAKO AUZO ETXEA.
ARRATSALDEKO 7ETAN.

APIRILAREN 6-8.
IPARRALDERAKO TXANGOIA.
LARUNBATEAN RAFTING ETA
IGANDEAN KORRIKA JAIA.
ZORROTZAKO AEK ETA
EUSKAL TXOKOA.

APIRILAK 8.
KORRIKA 12REN AMAIERA JAIA.
BAIONA.

APIRILAREN 8.
ABERETXO KUTUNEN ETA EUREN
JABEEN EGUNA. ARTAZURIÑA
KALEAN. EGUERDIKO 12ETATIK
AURRERA. LEHIAKETAK
EGINGO DIRA.

APIRILAK 12-16.
MENDI IRTEERA PIRINEOTARA.
BISAURIN, ACHERT-EKO GAZTELUA.
OZAKO OHIANETIK. EGUZKI LOREA
BOLUETAKO MENDI TALDEA.

APIRILAK 15.
ABERRI EGUNA.

APIRILAREN 22.
BILBOKO PARKEETATIK IBILBIDE
GIDATUAK. SARRIKOKO PARKEA.
GOIZEKO 11ETAN SARRIKOKO
METROKO GELTOKIAREN ATEAN.

APIRILAK 29.
MENDI IRTEERA LARRUN MENDIRA.
NAFARROAKO BERATIK. EGUZKI
LOREA MENDI TALDEA.

